



# LEUNDA, ZUMAIAKO TRIATLOIAN BIGARREN

Hernialdekoak 2:23:51 denborarekin lortu zuen 2. postua, irabazlea baino minutu bat eta 37 segundo beranduago 6

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Astearta  
2008-07-08**

VI. URTEA 1.480. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**LEIRE OLABERRIA ETA XABI FERNANDEZ** OLINPIAR JOKOETAN ARIKO DIREN ESKUALDEKO KIROLARIAK

## «Domina bat lortzea beti buruan daukazun zerbait dela argi dago»

**TOLOSALDEA** Ikaztegietakook eta Ibarakoak Pekingo Olinpiar Jokoetan ariko dira Espainiako selekzioarekin

**GOI MAILAN** «Konsziente gara egin dugun lan gogorraz, batez ere azken urte honetan», azaldu dute biek 4-5



**Gaurtik aurrera  
HITZA jaso ahal  
izango dute  
hernialdetarrek**

**HERNIALDE** Buzoiak jarri dituzte bertan; Udalak 3 euro emango ditu biztanleko 6



Entzierroa ere egin zuten Tolosan. 1.7

**Kolore zuri-  
gorriak zabaldu  
dira egun batez  
eskualdean**

**TOLOSALDEA** Iruran eta Tolosan San Fermin Eguna ospatu zuten txikienek 2

**Barriola, Lau  
t'erdiko San  
Fermin Pilota  
Txapelketako  
irabazlea**

**LEITZA** Olaizola II.aren aurka irabazi zuen atzo jokaturako finalean (22-11) 7



Jende ugari gerturatu zen Tolosako Plaza Berrira, eta gogotsu egon ziren suziariaren zain. I.T.



Irurako herritarra San Fermin jaietako osagai guztiekin. I.G.



Buruhandiek jolasean aritu ziren gaztetxoek Tolosako Plaza Berrian, batzuk ausart, eta izuturik besteak. I.T.



Moyua ganadutegiko zezenekin, entzierro txikia Tolosan. I.T.



Iruran alkateak eta haurrek bota zuten suziria. I.G.



Zezenekin jolasean aritu ziren Laskoraingo ludotekakoak. HITZA



Moyua ganadutegiko zezenekin, entzierro txikia Tolosan. I.T.



Zezenek mozorrotu ziren Irurako haurrak. I.G.

# Zuri-gorritz margoturiko festa

**Tolosako Udala**  
**IRAGARKIA**

Tolosako Udalbatzak, 2008ko ekainaren 3an egindako bilan, hasierako onespena eman zion Hiri Ordenazioko Plan Orokorreko Tolosako Planeamenduko Arau Subsidiarioen 9.3. "Korazonistak" (Oriamena) eremuari dagokion Hirigintzako Egikaritze Hitzarmenaren proposamenari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. apartatuaren arabera, espedientea hogei egun egongo da jendaurrean jarrita. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenek egokituz jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udalteko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean, Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Hitzarmena behin betiko onartutaz joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epeldalaren barruan.

Tolosa, 2008ko ekainaren 10ean  
ALKATEA

**INIGO TERRADILLOS**

Uztailaren 7a iritsi, eta horrekin batera festa lehertu da Iruñean, eta beste hainbat herritan, baina eskualdean ere ospatu nahi izan dute San Fermin Eguna. Iurreamendi auzoan, eta hainbat herritako lu-

**TOLOSAKO UDALA**  
**IRAGARKIA**

Udalbatzak 2008ko martxoaren 18an egindako osoko bilkuran hasierako onespena eman zion "15.2 Zubizarreta" Hiri Ordenazioko Plan Orokorreko azpi-esparru berriaren gaineko Hirigintzako Hitzarmenari, Iruriz Zelaia eta Pagola Aginagalde jaun-andreak aurkeztuari; eta, era berean, behin betiko onespena eman zion hitzarmenari, baldin eta informazio publikoko epeldian ez bazen alegaziorik aurkezten.

Bidezko diren argitalpenak egin eta gero, informazio publikoko epeldian ez denez inolako alegaziorik aurkeztu, aipameneko Hitzarmena behin betiko onartuta geratu da.

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio bide administratiobari. Haren kontra honako errekurtsioak jar daitezke:

- Administrazioarekiko auzi errekurtsioa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, ebazpen honen iragarkia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik zenbatuta, bi hilabeteen barruan.
- Aukerako Berraztertze Errekurtsioa Tolosako Udalbatzaren aurrean, aurreko atalean aipatu den errekurtsioa jarri aurretik, ebazpen honen iragarkia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteke epearen barruan.

Tolosa, 2008ko ekainaren 26an. ALKATEA.

dotekatan egin duten bezala, atzokoan Tolosan eta Iruran jantzi zuten zapi gorria.

Tolosako Plaza Berrian jende ugari bildu zen eguerdian suziariaren ostein iritsiko zen festaz gozatzeko. Gaztetxoak euren gurasoe-

## Iragarki laburrak

**LANA**

■ **Bi sukaldari eta zerbitzaria.** Ikaztegiako ostatu baten, bi sukaldari eta asteburuatarako zerbitzaria behar dira. 639 43 95 82.

abestiak. Sanferminetako giroa izateko, bestalde, bertako ohiko musika izan zen Plaza Berrian unero entzungai.

Bestalde, Laskorain Ikastolako ludotekako 160 neska-mutilak gustura ibili ziren atzo San Fermin Eguna ospatzen. Jantzi zuri eta zapi gorriarekin «alai» joan ziren, eta zezenaren aurretik korrika ere ibili ziren.

**Iruran ere festa polita**

Iruran ere herritar ugari bildu ziren atzo San Fermin Egunaren ait-zakian. Haurrek eta alkateak suziria botatzearekin hasi zen festa. Kasu honetan, zuri-gorritz jazteaz gain, txikiak zezenek mozorrotu ziren. Helduek abesteari ekin zioten, eta gaztetxoek bitartean jolaserako tartea izan zuten, korrika saioak eta barre algarak nagusi izan zirelarik.

## G Gutunak

### Herria da gorputza, hizkuntza bihotza

Eusko Jaurilaritzak plazaratu duen IV. azterketa soziolinguistikoaren arabera, EAEn, 10tik 8 erdaraz egiten da, eta 10etik 2 euskaraz; Nafarroa Garaian, 10etik 9 gaztelaniaz, eta Leuskaraz; eta Ipar Euskal Herrian, 10etik 9 frantsesez, eta 1 euskaraz. Hizkuntza hila erabiltzen ez den hizkuntza da. Beraz, esan liteke euskara bizirik egotetik baino heriotzatik hurbilago dela. Azterketa horrek Jaurilaritzaren 2005-2009ko egitasmoaren joera negatiboak konfirmatzen ditu: "euskararen erabilera urria eta guztiz irregularra da", "euskaldunak bakarrik hartuz gero, euskararen erabilera behera egin du", "ezin da euskararen geroa bermatutzat eman". Eta Kontseiluaren Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren ondorio nagusiabaliosten du: "hizkuntza eskubideak Euskal Herri osoan urruten dira". Euskarak gainean du desagertzeko arriskuaren mehatxua, hain gutxi erabiltzen den hizkuntza ezin baitu luzaroan iraun.

Egoera honen arduraren nagusia Espainiarena eta Frantziarena da. Bi estatu horien zapalkuntzak sus-trai sakonak ditu, jadanik XVI. mendean indarrean zegoen, eta gaur egunean ere dirau. Euskal Herriko estatua konkistatzea (Nafarroako Erresuma), euskal kultura asimilatzea eta hizkuntza komunitatea desegitea dira ondorio garrantzitsuenak. Garai hartako Euskal Herria euskalduna zen, beste hizkuntzak tartean baldin baziren ere, baina harrezkero, bi estatu horiek euskararen erabilerraren baktarte progresiboa eta murriztailea eragin dute bere hapan demografikoan, bere zabalpen geografikoan eta bere erabilerrasparruetan, eta, beraz, bere era-

biltzeko aukeren errepresentazioan ere. Horregatik, PPrein planteamendua Euskal Herrian erdaraz bizitzeko, indarkeria eta imperalismo linguistikoa onartzea da: faxismo linguistikoa.

Alabaina azken 30 urteotan EAJk du egindakoaren eta egingabekoaren ardura. Espainiaren estrategian sartu eta Autonomia Estatuarekin Euskal Herriaren ukazioa, lurralde zatiketa, menpeko hizkuntza politika eta legeria onartu baitzituen. Eta horrela, lortezina da estatuen kolonizazioa eta asimilazioaren injustizia bukatzea, eskuraezina dagozkigun hizkuntza eskubideen errespetua lortzea. Hizkuntzen erabilera soziala hizkuntza politikaren ondorioa da, hizkuntza politikaren oinarria ofizialtasuna da, eta ofizialtasunarean euskarria legea baita.

EAJren jarrera ez da fidagarria. Batetik, euskararen normalkuntza mugatzeko kontzeptuak manipulatuta dituelako. Hizkuntza normal-kuntza eta elebitasun soziala kontrajarriak dira, baina hitz jokoen eztabaida hori zabaldu du ereduari buruzko debata ezkutatzeko. Elebitasun sozial orekatu eta iraunkorraren adibiderik ez da munduan. Ez da normalkuntza, menderakuntza baizik. Bestetik, euskalgintzaren aurka gogor jokatu duelako. AEK, Egunkaria, Kontseilua, ... Jokabide horien azpian batek baino gehiagok trauma sozialik gabe euskara urratsez urrats galtzeraino eramane ahal izateko asmo gaitztoa ikusi du.

EAJren egungo estrategiarekin ezinezkoa izan da, da eta izango da Euskal Herri euskalduna berregitea. Bere proiektu politikorekin helburu ez delako, egungo esparru politikoa aldatu nahi ez duelako, estatu-hizkuntza ofizialak Euskal Herrian inposatzea ontzat ematen duelako eta aliantza politika PSO-

erekin burutzen duelako. Alderdi espainolista honek "Euskal Herria" izena Euskal Curriculumetik kentzea exijitu, euskaldunen hizkuntza eskubide indibidualen dimentsio kolektiboa baztertu, eta Euskararen Herriaren autodeterminazio eskubide unibertsala ukatzen du. PSOErekin hitzartzeak, hortaz, Estatu espainiarrek jarritako mugak onartzea eta Euskal Herri euskaldunaren aurkako betoa ametitzera suposatzen du.

Euskararen desagertzeko politika Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaiko eremu zabaletan burutzea eta, ondoren neurri paliatiboa bideratzea ez du balio. Jaurilaritzak hango arduradunekin argazkietan ateratzeko asmoa egon daiteke zuzenduta, euskara laguntzera baino, hiru herrialdeetara mugatzen den EAJren menpeko hizkuntza politikaren mugak zurtzera, Euskal Herri osorako hizkuntza politika nazional bakarra eta tokian tokikoaren gabezia esaltzera, legeria eta plangintza mailako aurretiazko neurri proaktiboen falta ezkutatzera, eskolaren eta administrazioaren porrotetik arreta desbideratzera, itxurak egitera hizkuntza politikaren eredu berriaren beharra saihesteko.

Hizkuntza gaitasuna dimentsio indibiduala da, baina hizkuntza fenomeno soziala da. Euskara ez da erabiltzen gune erdaldunetan, erdal baldintzatan jarduten dutenetan; eta erabili ahal izateko, baldintza horiek aldatu behar dira. Horregatik, azken 30 urteotan menpeko hizkuntza politika bideratu duenak, politika askiezharren emaitza eskasen ardura euskal hiltzunei bakarrik leporatu nahi izatea iraingarria da.

Euskararen garapen iraunkorra bermatzeko, Euskal Herriak herri-erabiltzearen aitortzea eta gauzape bideratuko dituen aldaketa

politikoa behar du: Esparru Demokratikoa, Euskal Estatuari atea irekitzeko, Euskal Estatu baina euskara babesteko eta gure eskubideak bermatzeko alternatiba bakarra. Euskal Herria euskalduntzeko hiru baldintza beharrezkoak baitira: euskal herritarren konpromiso zibikoa eta politikoa, norberari dagokigun euskal nortasuna osatu eta guztion normalkuntza prozesua bultzatzeko; eragile sozialen jarrera proaktiboa parte hartzen duten organizazioetan, nazio mailako esparru sozialak euskalduntzeko; eta Euskal Estatuaren indar derrigorzailen demokratikoa, garai historiko bakoitzean euskararen egoera hobetu eta bere iraunkortasuna bermatzeko.

Horretarako, Ezker Abertzaleak azken urte hauetan, euskal jendarteari eskaini dizkio hizkuntza politikari buruzko zenbait tresna. Hala nola: Hizkuntza Politika Berria, Euskara Berreskuratzeko Legea eta Hezkuntzarako Hizkuntza Politika Berria. Proposamen erakitzailen horien bidez eztabaida piztu, hausnartu eta Euskal Herriak behar duen aldaketa politikoa guztiok artean edukiz bete dezagun.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren arabera, hizkuntza komunitate guztiak eskubide berdinak dituzte. Ez da euskara toleratzea, erabateko berdintasuna baizik: herritarrek, euskarak eta Euskal Herriak bere lege ordenamenduan jasota behar dituzte gaztelaniazko komunitateak Espainian eta frantsesezkoak Frantzian duten eskubide berdinak. Berdintasun politikoa, juridikoa eta, -denbora baten barruan-, soziolinguistikoa. Ez oraindik umildu, elkarrengana bildu, ...gure Euskal Herria!

**Inazio Agirre.** Ezker abertzaleko kidea.

## 18 urteko gazte bat atxilotu dute gasolindegiko langile bat eraso duelakoan

**Gizartea** » Igande goizean jazo zen ustezko eraso; langileari muturrekoa eman eta odol jariora eragin diote sudurrean.

### ERREDAKZIOA

18 urteko gizonetako bat atxilotu zuen Ertzaintzak igande goizean, Tolosako gasolindegiko langile bat eraso duelakoan.

Barne sailak jakitera eman zuenez, bi gazte gasolindegira heldu ziren igande goizean, 09:00a aldera, eta homologoziorik ez zuen ontzi batean gasoila bota nahi zuten. Orduan, Tolosako gasolindegiko langileak hori ezin zutela egin esatera hurbildu zen harengana. Une horretan, ustez erasotu zuten langileak, muturrekoa eman eta sudurrean odol-jarioa eragin ziotelarik.

Gazteek gasolindegitik ihes egin zuten eta hortik denbora gutxira gazteetako bat atxilotu zuen Ertzaintzak.

## Laburrak

### Pala Txapelketan izena emateko azken eguna, gaur

**TOLOSA** » Tolosa Cfk antolatuta, aurturera Pala Txapelketa izango da Berazubiko pilotalekuan. Bertan parte hartu nahi dutenentzat izena emateko azken eguna gaur izango da. Horretarako hainbat aukera zabaldu dituzte; batetik, estadioko bulegoetan edo 656 719263 eta 943 671749 telefono zenbakietan. Izen-ematea 20 euroren truke izango da. (Tolosa Cfkko bazkideentzat 10 euro).

### Ekonomia Batzordearen bilera, gaur udaletxean

**HERIALDE** » Ekonomia Batzordeak bilera egingo du gaur, 21:00etatik aurrera, udaletzeko pleno aretoan. Bertan urteko aurrekontua aztertuko dute.

### Ikaztegietako Udala

**IRAGARKIA**  
2008. urteko lehen sei hilabeteko zaborbilketa tasari dagokion errolda onartu da, eta honi dagozkion ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jarriak izan dira. Ordaintzeko epea irailaren 5ean bukatzen da. Ordainketa, banketxean nahiz udaletxean egin ahal izango da. Helbideratuta dauden ordainagiriak irailaren 5ean kobratuko dira.



## Odriozolari «elkartasuna adierazteko»

**TOLOSA** » Iragan larunbatean, uzta-laren 5ean, Lugon (Galizian, Tolosatik 600 kilometrorra) aurkitzen den Bonxe-ko espetxera marxa burutu zuten hogeiren bat lagunek. Marxa honekin «Pello Odriozola preso politikoa tolosarri elkartasuna adierazi eta Estatu espainolaren espetxe politika salatu» nahi izan zuten. Bertan, «dultzainak lagunduriko ekitaldi xumea» egin zuten, aparteko arazorik gabe. Pello Odriozola tolosarra 20 urte egin ditu kartzela ezberdinetan eta kalean behar zuen uzta-laren 3az geroztik. Baina Estatuak Parot doktrina aplikatu ondoren, beste 10 urte luzatu diote espetxealdia. HITZA



**Elkarrizketa**

**LEIRE OLABERRIA ETA XABI FERNANDEZ** ▶ Olinpiar Jokoetara joango diren eskualdeko kirolariak

**Kirola** ▶ Abuztuaren 8an Pekingo Olinpiar Jokoetan eskualdeko bi ordezkariak Olaberria eta Fernandez izango dira, bata bizikletan eta bestea belan.

**ASER IMAZ - NEREA URZUZU**

Pekingo Olinpiar Jokoak abuztuaren 8an hasi eta 24an arte izango dira eta bertan, Tolosaldek Leire Olaberria (Ikaztegieta, 1976) eta Xabi Fernandez (Iturr, 1976), joango dira datozen egunetan, baikoitzak hobekien menderatzen duen kirolariak. Olaberria piston eta Fernandez belan. Biak ere, zergatik ez, domina bana ezarzeko amonarik.

**Nola zoazte Pekin aldera?**  
**Xabi Fernandez:** Heri Martinez eta ni gaur goz eta 12 eguneko kontzentratuta egongo gara bertan. Material dezente ere erabakitia daukagu. Txalupa bertan iritsi da eta orain datozen egunetan erabiltzeko dugu. Hiru egunetan bertatik ekipo guturirik gabe, bertan gelditzea Olinpiar Jokoak bukatuta arte.  
**Leire Olaberria:** Bihar Italiara noa igandera arte eta gero 20tik abuztuaren lehen egunera (Herridale Katalkak) joango naiz bertatik. Abuztuaren 6an joango naiz Pekinera.  
**Azkeneko egun hauek nola irazteko bizitza?**  
**X. F.** Gogo ikaragarriekin nago hasitako eta bukatzeko, eta baita lehian zehazko ere. Baiterik ematen, guzok erabakia egin behar dugu. Joan aurrerik espero dut egun batzuk lasiak izatea. Behin han egonda jada ez dugu inolr molestatuko, ez telefonorik eta ez ezer [barrez biak].  
**Kontzientziaren zerekin noren batean munduko guztiak gainean izango duzue?**  
**L. O.** Bai, baina guk asko dakigu hori berentzen, lan pila egin dugu horretarako. Egia da ere hasieran urrutik ikusten nuen abuztu baina iritsi da. Baiterik ematen eta hiritik itxia behin behalbehin nahiz dugu, ez dakit, denetik pitxia bat sentitzen da. Belan ez bezala, bizikletarekin badaukigu zehazko material erabiltzeko dugu, aldiz, aurrerik. Baiterik, lan nean jarraitu behar. Italiako proban jakindu dute nola nagoen eta gizona Pekin arako diranak bertan izango gara.  
**Zehazki hurburutzeko?**  
**X. F.** Hilduena domina ezarzea da, koloreari edo materialari begiratu gabe. Urte hauek ez dira oso ondo joan, baina azken urte hanturik, orain nuen da horren jantia domina ataratzeko. 24an aztera begiratuko dugu eta lan oso ona egin dugula ikusiko dugu.



# «Argi dago domina buruan beti daukazun zer bait dela»

**L. O.** Gu kirolari behar dugunak asko prestatzen gara horretarako eta zure egunerokoa entrenatzen eta deskantsatzen izaten da. Ez zer atzeratzen den egun horietan. Aurreko egunak guzti egungo zaizkiz baina oso kontzientzia naiz egin dudana irazten, eta ez dakit, denetik futura da, nire sententziak onak dira, eta sententziaren onakirik bukatzea gustatuko litzateke. Kirolari, beti esan izan dut, behin lortu duzuna berriz ere lor ditezakeela. Laugarren postua eskotatu egin dut, eta orain momentu on izango litzateke domina bat kartzeko, baina oso kontzientzia naiz horrek suposatzen duen zailtasunarekin eta prest gogo zailtasun horietan aurreratu egiteko.

**Xabi, zuk baduzu Atenasko Olinpiar Jokoetako esperientzia. Azken postuzen diren egun horietan?**  
**X. F.** Ez penza azkar pasatzen direnik, 10.100 daukagu eta nahiko luze egin da. Guztiak nola doaz noren arabera da ere. Orain zehazpen onak dauzkak. Baina aurrerago gogorra izango da. Fa- bortoio dugu gure burua ikusten. Azkenaldian ondo ibili gara, baina mundualdi irabazi zuenak zehazki irabazi zuten.

**Go mailako kirolarien gozateko aukera badago?**  
**L. O.** Ez baduzu gozaten ez du murriztu. Egunko entrenamenduak ere disfrutatzen dit. Lehiaketak garaia ere bai, gehien disfrutatzen den momentu hori da, lehiaketa. Baina denetik ikusten da, ilusiorik gabe dabilen jendea ere.

**X. F.** Ereta dagan jende asko erabiltzen da urte asko daramatzalako, normalean du neurri batean. Lehiaketa onak askoz gertatzen da, eta irabazteko, guztiak egin behar dira. kirolari, tristek dena: mundu mailan ohituta zauden kategori bateko jendekirin lehian izaten eta gero jendekirin, berriz, hainko jantia ez daukan lehiaketa batera, intenzio txarreko detak pila bat ikusten dituzte eta hori ez dute onartzen, kalte asko egin baitzekezazu eta onura ez gertatzen. Egia da lehian zaren garaian emaitzak behar ditugula eta hori berriz irabazteko gurela baina, niri arbidet, aurrerago mundu mailako entrenatzaile erusar bat etortri zitezakidatzen nire onden, oraindik ez dakit ongi zer egin nuen baina zortidu egin ninduen. Txirritadur orain zerekin irabazten zait baina pertsona hobet zezaten izan. Bideratu karreran zer bait berantzen onargarria egin naiz. Bana erusar bat horetan etortzen ez da normalean, berriz, ditzekidateko izanda. Nik aste detak horiek ere balioduta.

**Dopina ere kirolarien parte dardelak, nola hain zuzeneren?**  
**X. F.** Guk zorte handia daukagu. Trampa ditzak egiten dira baina

gizaki aritu, behin eta berriz... Gogorra da, baina dardak gabe merer da. **Tibeteko kontur, antortzen inguruko polimetin...** **Nola bit duzue hauz guztiak?**  
**X. F.** Ez dakizu oso ondo. Egutera orain diferentia da, zer bait izaten da, baina horretarako epea aprobetxatu egin den du propandagatik, guk ez dugu zerikuririk horretan. Beste larrikeria ere bokituko egitea nahitago naiz.

**L. O.** Azkenen objektiboa ez dakizu zein den. Ez dakizu telebistari busestak horietan, zehazki erakusten duen. Kirolari batek lan pila egin behar izan du Olinpiar Jokoetara joateko eta hainko polimikantzia da urte behar izatea.

**Xabi, zure kirolari bati burutik pasatzen, astakeria ikaragarria ikustener hasi behin?**  
**Pilotari handi batek zioen irabazteko gaiztoa izan behar dela.**

**X. F.** Ez dit uste horietan besterik irabazteko. Kirolari bati burutik pasatzen, astakeria ikaragarria ikustener hasi behin?

**X. F.** Gogorra da, baina dardak gabe merer da. **Tibeteko kontur, antortzen inguruko polimetin...** **Nola bit duzue hauz guztiak?**



Xabi Fernandez eta Leire Olaberria, HITZAko bulegoan.

erabiltzen dit. Enean guinera beti zure papera izaten dute eta zara Leire ziklista. **X. F.** Nire etxean asko jarraitzen naitz. Nire arazirik bako eta zure arazirik bako da eta Olinpiar Jokoetan egongo da. Gurasok lehen galdak ere gehiago egin zizkidaten baina orain lasiago. Pizki dauka eta badakite zer baitan eginen dugun baina hori ezertan naitzenez ez dut gehiago hitz egin nahi izaten gaur horietan. **X. F.** Lehena behar du hitz eginen dominaren eta du alpatu eta hori galdetu nahi nioke. Domina bila joan behar dabiluzten zait niri. **L. O.** Gure dago dominaren zure baina daukazu zer bait dela. Badakizu egun horietan lor dezakezula. Baina ditugu bakoitzak bere berrezitasunik diru eta gure kasuan puntuaketa oso irakia izaten da. Karrean ematen zure buruan kirolari gutur gertatu arren 10. postuan gero zaitzuke. Badakizun izan eginen badut fortko dudala baina... aukerak ikusten badituzte zailtasun gertatu arren 10. postuan gero zaitzuke. Badakizun izan eginen badut fortko dudala baina... aukerak ikusten badituzte zailtasun gertatu arren 10. postuan gero zaitzuke. Badakizun izan eginen badut fortko dudala baina... aukerak ikusten badituzte zailtasun gertatu arren 10. postuan gero zaitzuke. Badakizun izan eginen badut fortko dudala baina... aukerak ikusten badituzte zailtasun gertatu arren 10. postuan gero zaitzuke.

**X. F.** Ondo etortzen badin badira, Atenasko bezala, berriz errepikatzen murriztu dugu. Baina egin da hurrengo urtean nahiko zaila dela. Jokoak pass dira eta aseden bat behar dugu. Belarri dago-kinez. Jotki baloizkoan dominaria bakoitzak berak erabazteko da. Baina izateko edo bat izateko ez da berdina, bigarren hori da gure modotzika.

- DI-DIA BATEAN: XABI FERNANDEZ**
- **Metak** bat. Urrua.
  - **Denboralibrea.** Atdeden harriko.
  - **Podiuma.** Heiburuak.
  - **Lehenengo proba hastera dno.** Nerbioak.
  - **Greziar jantiko bat.** Eolo.
  - **Pekin.** Beste helburu bat.
  - **Agurraren ordua heldu da.** Emaitzak irabazteko egongo da on-dorengoa.
  - **Tinatarrak.** Jalotarik.
  - **Agurraren ordua iritsi da.** Emaitzak irabazteko egongo da.
  - **Proba bukatu eta ezagun bat gredetan.** Poz handia.
  - **Laugarren postua.** Bosgarrena baino hobea.
  - **Espainiako koloreak.** Beste aurkerarik ez dago.
  - **Espainiako koloreak.** Selektzioaren koloreak dira.
  - **Denboralibrea.** Deskontrolatzea.
  - **Greziar jantiko bat.** Er dakit...
  - **Pekin.** Asko kostatutako bide baten helmuga.
  - **Agurraren ordua iritsi da.** Emaitzak irabazteko egongo da.
  - **Tinatarrak.** Desberdinak.
  - **Agurraren ordua iritsi da.** Emaitzak irabazteko egongo da.
  - **Proba bukatu eta ezagun bat gredetan.** Hiri dura lehenengo. Gero, ezagun baten besakada jasotzea eskertzen da.
  - **Laugarren postua.** Laugarren berriz? Dena dela, Olinpiar Jokoa-tan ez da postu bera laugarrena.



Jon Mujika eta Igaro Balda, atzo Hernialdeko udaletxean, hitzarmena sinatzen. I. GARCIA

## Hernialdetarrek HITZA jasotzeko aukera izango dute gaurtik aurrera

**Hernialde** » Udalak astegunetan eta okinak asteburuetan banatuko dituzte aleak horretarako jarritako buzoietan.

IMANOL GARCIA

Udalak eta HITZAK sinatutako hitzarmenaren ondorioz, herritarrek eskualdeko euskarazko egunkaria jasotzeko aukera izango dute gaurtik aurrera. 2008 urtean gainera, doan jaso ahal izango dute. Horretarako Udalak buzoi batzuk jarri ditu, herrian buzoiak dauden bost puntuetan. Asteazken zehar Udala bera arduratuko da HITZA banatzeaz eta asteburu okinak utziko ditu egunkariak buzoi horietan.

Bai Udalarentzat bai HITZARENtzat aurrerapauso bat izan dela adierazi dute Igaro Balda alkateak eta Jon Mujika egunkariko kudeatzaileak. Baldak azaldu duenez, «eskualdeko egunkaria da eta baliabide ona da herriko albiste berri emateko. Horrez gain inguruko herrietan gertatzen diren albisteak jasotzeko balio du». Jon Mujikak



Bost buzoi jarri ditu Udalak HITZAREN aleak uzteko. I. GARCIA

azaldu duenez, «oso gustura gaudelortutako akordioarekin. Eskualde guztira HITZA iristea da gure helburua, eta noski, herri txikietara ere bai. Askok eskertzen diogu Udalak izandako inplikazioa eta egin duen apustua».

Datorren urteari begira, horrela nahi duten herritarrek harpidetun egiteko aukera izango dute egunkaria jasotzen jarraitzeko. Baldak azaldu duenez, «espero dugu herritarrek konpromisoa hartzea datorren urtetik aurrera».

Mujikak gaineratu duenez, «orain martxan jartzen dugun ekimen hau proba bat izango da Hernialdeko herritarrek zer erantzun ematen dioten ikusteko».

### Hiru euro biztanleko

Egunkariaren banaketan lortutako akordioaz gain, Hernialdek biztanleko hiru euro emango dizkio HITZARI urtero, legealdia bukatu arte, hau da 2011ra arte. Horrela, Udalak guztira 954 euroko laguntza emango dio aurten.

## Leunda bigarren, Zumaiako Triatloian

**Hernialde** » 2:23:51 denborarekin irabazlearengandik minutu eta 37 segundotara amaitu zuen hernialdetarrak.

ERREDAKZIOA

Itsaso Leunda hernialdetarrak bigarren postua lortu zuen Zumaiako Triatloian. 2:23:51ko denbora egin zuen, Ana Casares irabazlearengandik minutu bat eta 37 segundora. Gizonezkoetan Felix Javier Martinez izan zen irabazlea.

Zumaiako triatloian bosgarren edizioa izan zen. Distantzia olimpikoan azkena eta 2008ko zirkuitoari dagokionez bosgarren puntuagarria. Antolakuntza, aurreko urtetan bezala, Zumaiako Triatloi Taldearen eta ET Faren esku-tik izan zen. Irteera lerroan 413



Itsaso Leunda. UR ALGERO

triatleta aurkeztu ziren eta bertan izan ziren zirkuitoan aurrean dabilzan triatletak, bi kategoriei dagokionez.

## Villabonako Udalak komun publikoak zabalditu daude udaletxean

ERREDAKZIOA

Duela hilabete eskas, komun publikoak zabalditu ditu Villabonako Udalak udaletxearen albo batean, lehen udal langileek lan-tresnak gordetzen zituzten gunean. Goizeko 08:30etik 21:00etara zabalik egongo dira eta epe laburrera, komunak seinaleztatzeko karteltxoak jarriko dute, herritar guztiek ondo jakin dezaten non kokatzen diren.

Komun eta lababoaz gain, haurren pardelak aldatzeko mahaia ere badago. Udaletik azaldu duenez, «garbitzaileak egunero bere lana beteko duen arren, guztion esku dago komunak ondo zain-tzea». Herriko jaietan egunez soilik irekiko dira udaletzeko zerbitzu horiek. Gauetarako, urteroko komun berdeak jarriko ditu Udalak kaleetan.

## Festetarako langileak kontratatuko ditu Villabonako Udalak

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak Santio festetarako langileak kontratatuko ditu. Peoi-arduradun bat, bi peoi arrunt eta bi trafikoko-zaintzaile kontratatuko dituzte aldi baterako. Izena emateko betebeharrak zehaztu ditu Udalak. Batetik, 18 urte beteta izan behar ditu eta, bestetik, euskaraz hitz egiten jakin behar du.

Izena udal bulegoetan eman behar da eta epea ostiralean bukatzen da. Peoiak eta peoi-arduradunak aukeratzeko froga praktikoa hilaren 15ean, 10:00etan, egingo dute Sacem-ko udal instalazioetan. Frogan, iniziatiba, ardura eta esperientzia zentzeko lanetan hartuko dira kontuan. Peoi-arduradunen kasuan, esperientzia eta herriko azpiegituren ezagupena ere kontuan hartuko dira.

## U Urteurrena

X. urteurrena

**ASIER  
GARTZIA SESTORAIN**



Hor ikusten zaitugu,  
irrifarrez eta isilik.

Etxekoan partetik

LEITZAN  
2008ko  
Uztailaren 8an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Barriolak San Fermin torneoa irabazi du bigarrenkoz

**Leitza** » 22-11 irabazi zion Olaizola II.ari eta goizuetarrarekin batera torneo hau bi aldiz irabazi duen pilotari bakarra da.

## NAIARA GARZIA

Abel Barriolak bigarren aldiz irabazi du Lau t'erdiko San Fermin torneoa, atzo Olaizola II.ari 22-11 irabazi ondoren.

Hasiera-hasieratik Barriolak aurrea hartu zion 3-0' irabazten hasi baitzen leitzarra. Julian Iparragirre bertan izan zen, Labrit Pilotalekuan. «Abelek oso ongi jokatu du, bere gauzak oso ongi egin ditu. Aimar hasieran nekata bezala atera da, larunbatean bere anaiaren aurka jokatu zuen buruz burukoa eta beharbada errekupe-ratzeko denbora gutxi izan du».

Iparragirrek azaldu duenez, «berez Aimar Lau t'erdiko kaiolan hobeto moldatzen da eta Abelen-

tzat etsai gaiztoa da, baina honek argi erakusten du egun guztiak ez direla berdinak izaten. Abel batere presiorik gabe joan da eta partida borobila atera zaiou». Iparragirren ustez pilotan alde handia izan zuten, eta hori izan zen partidaren gakoa. «Abelek pilota biziagoak aukeratu zituen eta Aimarrek ezin izan du pilota hauekin. Abelek hobeto aprobetxatu du eta merezi zuten partida hau irabaztea».

Joan den urtean Barriolak 22-8 galduta zuen aurkari beraren aurka, eta atzo ere Olaizola II.a faborito bezala irten zen, baina Barriolak irabazi ondoren, alde zuzeneko partida batean zer gertatuko den jakiterik ez dagoela garbi gelditu zen. «Garbi dagoena da nahiz eta pilotari batzuk faborito atera horrek batzuetan ez duela esan nahi partida irabaziko dutenik».

Sanferminetako Lau t'erdiko Txapelketak bederatzita urte daromatza pilota munduan, eta guztira 8 txapeldu ezberdin izan ditu,



Lau t'erdiko torneoaren ondoren, binakakoan ariko da Barriola. N. GARZIA

atzo arte Olaizola II.a baitzen txapelketa hau bi aldiz irabazi zuen pilotari bakarra, baina atzotik aurrera, Barriola eta Olaizola II.a dira bi aldiz txapelketa hau irabazi duten pilotariak. Lau t'erdiko San Ferminetako Txapelketa ere ondorengo beste pilotariek irabazi dute: Jorge Nagorek, Eugik, Mikel Goñik, Esainek, Patxi Ruizek eta Martinez Irujok.

## Binakako Torneoa

Atzo guen, berriz, Binakako Torneoari hasiera eman zioten eta bertan Bengoetxea VI.a eta Barriola leitzarrek ariko dira. Hain zuzen ere, Bengoetxea VI.ak hasiera eman zion atzo txapelketa honi, Otxandorenarekin batera Martinez Irujo eta Pascualen aurka jokatu baitzuen. Hauen aurretik Galzarza V.a-Merino eta Diaz-Eskudero bikoteak lehiatu ziren.

Guztira, dozena erdi bikoteak jokatuko dute aste osoan zehar Labriteko kantxa gainean: Bengoetxea VI.a-Otxandorenak, Asier Olaizola-Beginok eta Aimar Olaizola-Belokik Asergace taldearen aldetik eta Xala-Barriolak, Martinez de Irujo-Pascualek eta Titin III.a-Goñi III.ak Asperen aldetik. Finala uztailean 14ean izanen da, Labriten bertan.

## Eugik agur pilota profesionalari

Patxi Eugik atzo agur esan zion pilotari Labriten, 17 urte profesionalan eman ondoren.

# Aresoko taldea eta Goiherri B, hirugarren

**Areso** » Aresoko taldeak laugarren postua eskuratu zuen larunbatean, Goiherri Bren atzetik eta orain azkenaurreko doaz biak.

## N. GARZIA

Lehen jardunaldian bezalaxe, bigarren jardunaldian ere Goiherri A taldeak eta Gaztedik berdinketa lortu zuten larunbatean, eta, ondorioz, bi taldeak bederatzina puntuarekin dira sailkapen orokorrean. Aresok, berriz laugarren postua lortu zuen.

Lesakako sanferminetako barruan jokatu zen lur gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketako saioa, larunbat arratsaldean. 600 kiloko bigarren jardunaldia jokatu zuten Goiherri A eta Bk, Gaztedik, Aresok eta Getxok. Lehen jardunaldia joan zen igandean jokatu zuten, eta orduan berdindu egin zuten Goiherri Ak eta Bk, Gaztedik, beraien arteko txanda zen larunbateko saioan ikusmin handiena sorrarazi zuena. Lehia hori arratsaldeko azkena izan zen, hau da, hamargarren txanda. Ordura arte mendean hartu zituzten gainerako hiru aurkariak.

Beraien arteko lehen tiraldian,



Laugarren gelditu ziren Aresokoak larunbatean, Lesakan. I. ASTIBIA

Goiherrikoek zeukaten soka beren aldera, baina bi faltarekin ziharduten. Azkenean hori izan zen erabakigarria, epaileak hirugarren falta adierazi baitzuen Erandiokei (9 minutu eta 27 segundo). Bigarren tiraldian ere, Goiherriko joku zuten lehen kolpea, eta berak eraman zuen soka (3 minutu eta 21 segundo).

## Areso eta Goiherri B

Bestalde, hirugarren posturako lehia Goiherri B taldeak mendean hartu zuen Areso. Hirugarren txandan neurtu zituzten indarrak,

eta bi tiraldiak irabazi zituzten bikaitarrek (2:55 eta 4:37). Erandiokeok, halaber, Getxo gainditu zuten. Hain justu ere, Aresok Getxoren aurka lortu zuen arratsaldeko txanda irabaztea, eta, ondorioz, Getxo izan zen tiraldirik irabazi ez zuena.

Pisu horretako hirugarren eta azken jardunaldia heldu den larunbatean (uztailak 12) jokatuko da San Cristobal-Goiherri (Erandio, Bizkaia), eta orduan erabakiko da txapela zeinek eramanen duen maila honetan. Orain arte Goiherri A taldeak jantzi ditu jokaturiko bi

txapelak, hau da, 680 eta 640 kilokoak.

Larunbateko saioak ordu eta erdi iraun zuen. Saioaren hasieran 100 ikusle hurbildu ziren, baina euria egin zuenez, gutxi geratu ziren sokatira gunean.

Markaida, Matxain eta Telletxea izan ziren epaileak. Lesakako

Beti Gazte taldeak antolatu zuen jardunaldia, eta amaieran Lesakako orogarria eskaini zion taldeko Beñardo Yantzik Goiherri A taldeari, bera izan baitzen saioko garaila. Gaztediren aurka berdindu arren, Erandiokeok eraman zuten Gaztediren aurkako tiraldi bat azkarren.


## » SAILKAPENAK

### Bigarren jardunaldia

- **Gaztedi.** 10 puntu.
- **Goiherri A.** 10 puntu.
- **Goiherri B.** 6 puntu.
- **Areso.** 3 puntu.
- **Getxo.** 0 puntu.

### Sailkapen orokorra

- **Gaztedi.** 9 puntu.
- **Goiherri A.** 9 puntu.
- **Goiherri B.** 5 puntu.
- **Areso.** 5 puntu.
- **Getxo.** 2 puntu.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendariak:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Teléfonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Asteasu.** VIII. Santamaña Igoera izango da hilaren 13an, 10:30ean (7 km). Izen-ematea, bi ordu aurretik edo 943 696896 eta 943 693400 telefono zenbakietan  
■ **Elduain.** Patinaje ikastaroa, asteartean eta ostegunetan izango da, 18:15ean. uztailean 24ra arte. Abuztuan 19an hasi eta 28 arte. Abuztuko ordutegia ikasleekin hitzartuko da.

### Irteerak

■ **Anoeta.** Promozio bidaia egingo dute Alkartasuna Biltokikoek Briones herrira, Errioxan, hilaren 22an, upategi bat bisitatuz. Izen-ematea, Biltokian 18:00etatik 20:00etara, 10 eurotan.  
■ **Tolosa.** Harizpek Salamancara irteera antolatuta du irailaren 14tik 19rako. Bazkideek 226 euro eta ez bazkideek 231 euro.

### Kirolak

■ **Tolosa.** Berazubini jokatu den Pala Txapelketarako izen-ematea, estadioko bulegoetan edo 656 719263 eta 943 671749 telefono zenbakietan (20 euro, Tolosa CFko bazkideek, 10 euro). Gaur izango da azken eguna.  
■ **Villabona.** Oza-Atxerito (2.358 m)-Zuriza mendi irteera antolatuta du Aizkardi mendi elkarteak hilaren 13rako. Izen-ematea, elkartearen bertan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

# Ekitaldiz beteriko urteari agur

**Euskara** » Tolosaldeko AEKtik ikasturteko balorazioa egin dute; ikasgelatik kanpo ere ekitaldi ugari egin dituzte.

### ERREDAKZIOA

Eskualdeko beste ikasleena bezalaxe, Tolosaldeko AEKkoen ikasturteak ere bereak egin du. Behin amaituta atzera begiratzea da ohikoena, egingoak gogoratuz. Bada, ikasle hauek, euskara landu dute, ikasgelan bertan zein euskaltegitik kanpora egingo irteeretan. Horiek ekarri dituzte gogora arduradunek.

Besteak beste, aipatu dituzte, azaroran, Ogi goxo okindegira egingo irteera; abenduan Santo Tomas bezpera zela-eta bezperan egingo afari-merienda; Loatzo musika eskolako Iñaki Zalakainen hitzaldia; dantza saioa; I. pintxo lehiaketa Extremadurako elkartearen; Sorabillako Goiko etxeberribaserri bisita; fandango eta arinarin ikastaroa; eskulanak egitea... Ekainean, gainera, ikasturtearen amaieraren gertutasuna zela-eta hainbat merienda, bazkari eta afari egin dituzte elkarri agur esateko.

### Irailen ekingo diote ikasturteari

Ikasturtea amaitu izanagati, udan ere, izango dute euskara ikasi eta hitz egiteko aukerarik ere, hala nahi bada behintzat: gurasoekin, seme-alabekin, lagunekin, HIRZA irakurriz,.... Irailen ikusiko dute elkar; bien bitartean, Tolosaldeko AEKtik guztie ere uda ona opa diete.



Antzezlanak, dantzak, eskulanak,.... egin dituzte urtean zehar; euskaltegitiko ikasgelan ere euskara landu dute. HITZA

## A Agurrak



### Urte askoan!

### Zorionak Uxue!

Amatxoren 4 muxurik goxoak zuretzat.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**ABURUZA** Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA